

2019KO APIRILA



HARRERA FAMILIA EGITASMOA

LAUROKO IKASTOLAKO GAZTETXOEN EGONALDIAK ARNASGUNEETAN

LAURO IKASTOLAREN NONDIK NORAKOAK

1957an Bizkaiko ikastolen mugimendua sortu zen, eta hura izan zen Lauro zein beste ikastola askorentzat lehen hazia. 1968an ireki zuten Lauro, eta euskaraz eta gazteleraz irakasteko legeztatutako lehen ikastola izan zen Euskal Herri osoan. Ikastolaren inguruko informazio gehiago www.lauroikastola.eus webgunean.

Lauro ikastola Bizkaiko Auzoko nekazal ingurunean dago, Loiotik Mungiarara artean. Ikastolak euskararekiko sentsibiltate handia izan du bere 50 urteko ibilbidean, eta egitasmo ugari landu ditu euskararen erabilera sustatzeko.

Bere baloreen artean dago ikasleek euskara ikasi, landu eta eguneroko bizitzarako erabil dezaten sustatzea. Dena den, Bilbo Handian kokatuta dagoenez, ikasleentzat zaila da eskolatik kanpoko harreman-sareak euskaraz sortu eta mantentzea. Horregatik, Lauroko ikasleek arriskua dute euskara ikastolako beste gai baten moduan ikusteko. Hori da bertako errealitatea, eta hori da aldatu nahi dutena.

1. HARRERA FAMILIEN EGITASMOA ZER DA?

Bilbo Handiko Lauro ikastolaren, UEMArekin eta Eusko Jaurlaritzaren elkarlanean egindako proiektu pilotua.

ZERGATIK EGITASMO HAU?

Lauro ikastolako euskara teknikaria UEMArekin harremanetan jarri zen, Eusko Jaurlaritzaren bidez, beraien errealitatearen nondik norakoak azaltzeko eta ikastolako gazteen artean euskara sustatzeko zituzten egitasmoei bultzada bat emateko elkarlana proposatzeko.

Lauro ikastolako gazteen hizkuntza erabilera asko jaisten da adin batetik aurrera. Oro har, ingurune soziolinguistikoa medio, gazte horiek ez dute euskaraz modu naturalean aritzeko aukerarik. Gehiago esanda, gainera, ez dute uste benetan euskaraz bizi daitekeenik ere, eta horrek euskaraz aritzeko erabakian asko eragiten du.

UEMAren nahia da udalerrri euskaldunak hedatuz Euskal Herria euskalduntzeko ekarpena egitea. Udalerrri euskaldunetan euskara modu

naturalean erabiltzen da, euskara biziberritu egiten da gune horietan. Dena den, herrian bertan euskaraz aritzeaz gain, bertako herritarrak udalerrri euskaldunetatik ateratzen direnean paper garrantzitsua joki dezakete euskararen eusle modura. Horregatik esan izan da, udalerrri euskaldunak ekarpen ezin hobe egiten diotela euskararen normalizazioari.

2. HELBURUA:

Egitasmoaren helburua da inguru erdaldunetako gazteek euskaraz bizi diren eremuak ezagutzea, ondoren beraien inguru propioan euskararen erabilera areagotzeko.

3. ZERTARAKO

- Lauroko gazteak euskaraz bizi diren herriak badirela jabetzeko; hau da, etxean, kalean eta, batik bat, lagunartean euskaraz aritzea posible dela ikustarazteko.
- Uemak eta Eusko Jaurlaritzak egin nahi duten ikerketari ekiteko. Esperientzia pilotuak ematen dituen emaitzen arabera, ikusiko da nola zabal daitekeen beste eskola zein udalerrri batzuetara.

4. PROPOSAMEN ZEHATZA

Lauro ikastolako DBH3ko eta DBH4ko 20 gaztek UEMAko kide diren udalerrri euskaldunetan astebete pasatzea. Udalerrri bakoitzean launa gazte lau familietan.

- **NON:** Azpeitia, Goizueta, Lekeitio, Segura eta Zumaia.
- **NOIZ:** 2019ko apirilaren 22tik 28ra (Pazko astea).

5. HARRERA FAMILIETAN HARTZEKO BALDINTZAK

- Familiako kide guztiak euskaldunak izatea.
- Etxeko hizkuntza euskara izatea.
- DBH3 edo DBH4 mailako seme-alabaren bat izatea familian.
- Gaztea hartzeko logela bat izatea edo adin bereko seme-alabarekin elkarbanatzeko bitartekoak izatea.

HARRERA FAMILIAREN EGITEKOAK:

- Gaztea 7 egunez etxean hartzea.
- Gazteari eguneko jatorduak ematea.
- Adin bereko gazteak datorrenarekin ibiltzea, bere lagunartean txertatuz.

6. UEMA ETA ARNASGUNEAK

Hego Euskal Herriko udalerrri euskaldunak biltzen dituen mankomunitatea da UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea. Gaur egun, 87 udalerririk osatzen dute erakundea, eta bere xedea da udalerrri horietan euskara babestea, mantentzea eta sustatzea. 1991n sortuzen UEMA, eta honako helburuak ezarritu zituen:

1. Udalerrri euskaldunetan bizitza publiko zein pribatua euskaraz egin ahalizatea.
2. Euskara nagusi izango den lurgunea osatzea.
3. Udalerrri euskaldunetako garapen sozioekonomiko eta soziokulturala bultzatzea.

UEMA, bere sorreran, udalen euskalduntzean aritu zen bereziki; eta bide horretan aitzindaritzan lan mardula egin bazuen ere, udalerrri euskaldunetako bilakaera soziolinguistikoak arduratuta, gauregun hirulan esparrutan ari dalanean:

1. Udalerrri euskaldunetako euskaraz bizitzeko dauden oztopoak gainditzen.
2. Udalerrri euskaldunetako herritarrak ahalduntzen.
3. Udalerrri euskaldunen zaintzan.

Horrez gain, ingurune horietatik kanpo euskara zabaltzeko saiakera egiten du, arnasmuneetatik indarra eginda. Arnasmuneak euskara eroso bizi den eremuak dira, mehatxurik gabe, egoera normalizatu batean. Naturarekin alderatuko bagenu, Amazonia litzateke naturako arnasmune nagusia, munduari oxigenoa ematen diona. Udalerrri euskaldunenek funtzio hori betetzen dute, euskarari arnasa ematea, hizkuntzak bizitzeko indarra izan dezan.

UEMAko udalerrriak arnasmuneak direla esaten dugu, euskaldunen indize altua dela eta (%70etik gorakoa). Dena dela, badakigu udalerrri den-denek ez dutela arnasmune funtzio hori betetzen, eta horretan lan egiten du UEMAk; udalerrri euskaldunen zaintzan, mantenuan eta zabaltze lanetan.

UEMAk udalerriak zein Euskal Herriko udalerri euskaldunenak txikiak dira, oro har. Hori dela-eta, oso hauskorak dira, eta oso gutxi behar dute bertako hizkuntz joerak aldatzeko. Hala ere, indargune nabarmenak dituzte: hizkuntza belaunaldiz belaunaldi transmititu da toki horietan, eta uneoro ari da biziberritzen, euskararen erabilera altua dela-eta.

Normalizazioaren eredu dira udalerri euskaldunak. Haien izan behar dute erreferentzia gainontzeko inguruneak euskaldundu daitezten. Horretan sinisten du UEMAk, eta horretarako lan egiten du. Lider funtzioa dute arnasmuneei. Gune euskaldunetatik indarra eginda lortuko dugu inguruko txokoak euskalduntzea, euskarara hurbiltzea. Horretarako, ordea, gureari heldu behar diogu.

Azken urteetan eta, batik bat, azken hamarkadan, beherakada nabarmena izan dute udalerri euskaldunek. Ezagutzari dagokionez, jaitsi egin dira zifrak; baina, batik bat, erabilerari dagokionez egon da kontuan hartzeko hustutzea. Joera honakoa da: udalerri erdaldunak euskalduntzen ari dira apurka-apurka; eta gaur egun, Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, behintzat, ez dago %10eko euskaldun indizetik behera dagoen udalerririk. Bestetik, ordea, behera egin du euskararen presentziak erkidegoko gune euskaldunetan, eta 1981ean %90eko indizetik gorako 54 udalerri ziren arren, hamahiru dira gaur egun. Horretan eragin dute migrazioak, hirigintzak, mugikortasunak edo kultur ereduak bezalako faktoreek; eta UEMA hainbat proposamen garatzen ari da udalerri euskaldunetan zaintza lanak egiteko.

Positiboa da gune erdaldunak euskalduntzen joatea, baina udalerri euskaldunek jarraitu behar dute erreferente izaten, beste guztiek eredu hori izan dezaten, eta gora begiratu dezaten.

7. “FAMILIA HARRERA” EGITASMOA

Udalerrri euskaldunetatik Euskal Herriko gainontzeko eremuetan egin daitekeen ekarpenaren baitan kokatzen da, hain zuzen, proiektu hau. Ondoren azalduko ditugu haren helburuak eta ezaugarriak.

5.1 Helburua

- Lauro ikastolako DBH3-DBH4 mailako ikasle sentsibilizatuak ahalduntzea, aurrera begira beraien ikastolan eusle papera izan dezaten.
- Udalerrri euskaldunetako gazteak euskararekiko kontzientzia hartu eta ahalduntzea.

5.2 Perfilak

Lauro ikastolako DBH3 eta DBH4ko ikasleei, euskararekiko sentsibilizatuenak izan daitezkeenei, batetik; eta udalerrri euskaldunetako DBH3-DBH4 mailako ikasleak dituzten familiei, bestetik.

5.3 Datak

Egitasmo hau apirilaren 22tik 28era gauzatuko da, baina aurretiko lanak otsailean, martxoan zehar egingo dira, eta ebaluazioak 2019-2020 ikasturte hasieran jarraipena izango du.

5.4 Egitasmoa

Lauro ikastolako ikasleak udalerrri euskaldunetako adin bereko gazteak dituzten familietan egongo dira, bederatzi egunez.

Egun horietan, euskaraz bizi diren gazteak badirela ikusiko dute, baita eguneroko egitekoak euskaraz egin daitezkeela ere. Era berean, egunerokoan ikastolatik kanpo euskaraz jarduteko dituzten oztopoak gainditu eta zazpi egunez euskaraz aritu ahal izateko esperientzia biziko dute.

Udalerrri euskaldunetara doazen gazteek ez dute antolatutako dinamikarik egin beharrik izango, hau da, zazpi egunak egokitu zaien familian pasatuko dituzte, eta bertako gaztearen egunerokoa biziko dute.

5.5 Harrera familiak

UEMAk 20 harrera familia aurkituko ditu, mankomunitateko udalerrri euskaldunenetan; erabilera altuenak ematen diren udalerrietan, alegia. Erabileraz gain, kontuan hartuko da herri koxkorrak izatea, eta Bilbotik datorren gaztearentzat inguru erakargarria edo turistikoa izatea ere.

Harrera familia izateko baldintzak honakoak dira:

- Familiako kide guztiak euskaldunak izatea.
- Etxeko hizkuntza euskara izatea.
- DBH3 edo DBH4 mailako seme-alabaren bat izatea familian.
- Gaztea hartzeko logela bat izatea edo adin bereko seme-alabarekin elkarbanatzeko bitartekoak izatea.

Harrera familiaren egitekoak:

- Gaztea zazpi egunez etxean hartzea.
- Gazteari eguneko jatorduak ematea.
- Adin bereko gazteak datorrenarekin ibiltzea, bere lagunartean txertatuz.

Harrera familia bakoitzari gazte bat etxean hartzearen truke 150 euroko laguntza emango zaio, gazteak sor ditzakeen gastuak estaltzeko helburuarekin.

5.7 Lauro Ikastolakogazteak

Familietara datozen gazteek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- 5.7.1 Euskaraz hitz egiteko gaitasuna izango dute.
- 5.7.2 Euskararekiko sentsibiltatea izango dute.
- 5.7.3 DBH3 edo DBH4 mailako ikasleak izango dira.

Familietara datozen gazteen egitekoak:

- 5.7.4 Dagokion familia bizi den udalerrira joan eta etorri egitea.

- 5.7.5 Harrera familiaren ohituren arabera moldatzea.
- 5.7.6 Etxeko kontuetan laguntza eskaintzea.
- 5.7.7 Lo egin eta jateaz gain, izango dituen gastuak bere gain hartzea.